MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu-tituluaren 3. edizioa (2010-11 ikasturtea)

Hizlariak elkarrizketatuta

www.berria.info webgunean agerturiko bideoen transkripzioak

Joan Mari Torrealdai (2010-10-13)

Egunkariako kasuko sententziak argi eta garbi uzten du Egunkaria epaitzeko ez zegoela inolako argudiorik. Akusatzaileei esaten die aurre-juzkuekin ibili direla eta euskara ETArekin lotzen dutela inolako argudio edo frogarik gabe. Hortik abiatuta, begiratu nahi izan dut hori nondik datorren. Bere momentuan aurkitu genuen akusazioak erabiltzen zuen testu bat, Guardia Zibilek idatzia zena. Testuan suposatzen da ETArena dela euskalgintza bera, ez hor infiltratua dagoela, baizik eta bere eremu propioa dela hori. Noski, Egunkaria ere hor dagoenez, bada Egunkaria ere ETArena da. Horretarako erabiltzen dituzten argudioak oso bitxiak dira, absurdoraino doan amarru bat. Esate baterako, ba omen daude bat etortze batzuk Egunkariaren eta ETAren artean: Egunkariak bere hamaika puntuetako batean dio baterakoia dela, eta ETAk esaten du indar metaketa bat egin behar dela, beraz biek badute kointzidentzia bat horretan, eta elkarrekin daude. ETAk bere agiriren batean dio euskaltzaleei zor zaiela euskararen oraingo egoera. Egunkariak esaten du 70 euskaltzalek sortu zutela Egunkaria, beraz, hara hor beste kointzidentzia bat. Egunkariak esaten du nazionala izan nahi duela, eta ETAk termino bera zentzu berean erabiltzen du, beraz beste kointzidentzia bat. Termino hauek abertzaleen munduan, euskararen munduan, ikaragarri arruntak dira. Akusatzaileek, ordea, abstrakzio bat egiten dute, eta biak elkarren ondoan jartzen dituzte terminologia horri esker. Edozeini gomendatzen diot sententzia irakur dezala, benetan hankaz gora uzten dituelako aurre-juzku hauek. Esate baterako, argi esaten du: tesia hipotesiaren aurretik jarri dutela, lehenik konklusioak jarri dituztela eta ondoren horretarako argudioak bilatu dituztela akusazioek etab. Horrekin batera erakutsi nahi izan dut nola iritsi zitekeen horra Guardia Zibila, testu hori ez dela isolatua, hemengo gizartean ere antzeko argudioak beste tonu batean esanak zirela… nik uste garbi geratu dela Egunkariaren kasua ez dela Egunkariarena bakarrik, euskalgintza osoarena baizik. Egunkaria bezala, beste batzuk berdin zeuden jo puntuan. Oraingoz Egunkaria izan da azkena (hala izango ahal da!), eta agian emandako erantzun irmoagatik lortu genuen bide beretik gehiago ez joatea, eta orain lortu dugu Guardia Zibilen testu hori doktrina ez bihurtzea, eta beraz, jurisprudentziarik ez sortzea beste edozein euskal talde, elkarte edo proiekturen kontra argudio berekin jo dezaten. Hori da sententzia honek eman duen jauzi kualitatiboa.

Iñaki Arruti (2010-10-20)

Gaur HUHEZIn azaldu dudan gaia izan da katalana eta katalanen hizkuntza komunitateari buruzkoa. Ikusita zer nolako ikasleria dagoen hemen, pentsatu dut hizkuntza komunitatearen argazki orokor bat ateratzea lehenik, eta ondoren zentratzea askotan gurearekiko inbidia puntuarekin bizi izan dugun Kataluniaren lurralde eremu horretan. Beraz, alde batetik ikusi dugu guk Euskal Herria terminoa erabiltzen dugun bezala, *kataluniarrek* Països Catalans daukatela. Termino horren muinean hizkuntza dago, hizkuntza komunitate osoa, eta ikusi dugu ez dela Kataluniako lau probintzietara mugatzen. Italian, Sardinia inguruan dagoen herrixka bateko hizkuntzaren egoera azaldu dut, eta ikusi ditugu baita ere Aragoiko katalanarena ere, ikusi dugu ipar Kataluniako hizkuntza egoera, ikusi dugu estatu bat dagoela zeinetan hizkuntza ofizial bakarra katalana den (Andorra), eta ikusi ditugu beste hainbat errealitate ere: alde batetik, Balear irletakoa. Ondoren, País Valencià deitzen zaion horretan ikusi dugu ze parekotasun dagoen gurearekin, Nafarroari dagokionean. Azkenik, Kataluniako hizkuntza egoeran zentratu gara. Hor bi eremu bereizi ditugu. Ikusi dugu zein den egoera demolinguistikoa, hots, zenbat pertsonak ulertzen duten eta zenbatek hitz egiten duten katalanez. Datuak garrantzitsuak dira, ia %95ek ulertzen du eta hizketarako gaitasuna %80k du. Bolumenari dagokionez, 9 milioik hitz egiten dute eta 11 milioik ulertzen dute. Horrek Europako hizkuntzen bederatzigarren postuan jartzen du, eta estatua daukaten hizkuntza askoren aurretik kokatzen da. Eta hori da, hain zuzen ere egun katalanek diotena, ez direla Europan hizkuntza minoritario edo txiki bat. Era berean, aztertu dugu ze funtzio betetzen dituen katalanak Katalunian. Ikusi dugu familia bidez nola transmititzen den, irakaskuntzako egoera zein den, komunikabideetan edo interneten portzentaje aldetik duen kokapen ona, eta hizkuntzak dituen funtzioak errepasatu ditugu. Azkenik, hizkuntza politika aztertu dugu, alde batetik, argazki bat atereaz hizkuntzaren legediari, Estatut zaharretik hasi eta Estatut berriraino (orain tribunal konstituzionalak hizkuntzari lotutako hainbat kontu galarazi nahi ditu). Gero, aztertu dugu hizkuntza politika instituzionala eta beste gizarte mugimendua. Hemengoarekin konparazio txikiak egiten ere saiatu gara, jolasen bidez eta umore puntu bat jarriz, datu eta diskurtso luzeekin jendea ez zedin mozkortu, eta ez zedin aspertu.

Erramun Baxok (2010-10-27)

Hiru gauza aipatu nahi nituzke:

- Bata: Quebec eta Euskal Herriaren arteko desberdintasunak
- Bigarrena: Quebec eta Euskal Herriaren arteko berdintasunak
- Azkena: Ze irakasgai atera ditzakegun Euskal Herrian Quebecetik.

Bi herrien artean desberdintasunak nabariak dira. Alde batetik, gehiengo handian, quebectarrak frantsesdun elebakarrak dira. Hemen, euskaldun ia guztiak dira elebidunak. Bestetik, han hizkuntza eta kultura transmisioa familia bitartez egiten da, zeren eta gehiengo handiaren ama hizkuntza baita frantsesa, salbu eta etorkinentzat. Aldiz, hemen transmisioa eskolaren bitartez egiten da familia bidez baino gehiago. Hirugarren desberdintasun bat da, han Quebeci naziotasun kulturala eta hiritar naziotasuna onartzen diotela, burujabetza ez osoki. Hemen, ez digute ez naziotasuna ez burujabetza onartzen.

Badira berdintasunak ere. Nabariena zera da, bi herrietako hizkuntzak minorizatuak direla. Quebecen frantsesdunak gehiengoan badira ere, Kanada osoa eta Ipar Amerika hartzen baldin bada, hizkuntza minorizatua da. Beste berdintasun bat da demografia naturala ahulduz doala, eta beraz, immigrazioa beharrezkoa dela, eta immigrazioak sortzen ditu integrazio problemak. Badira antzekotasun gehiago ere: bi herrietako diaspora. Quebeceko kultura frankofonia osoan oinarritua da. Baina guk ere badugu gure diaspora, harremanak biziki ugariak dira Euskal Herriaren eta diasporaren artean.

Orain, Quebecetik atera ditzakegun irakaspen batzuk aipatuko ditut. Alde batetik, herri nortasunaren kontzientzia baitezpadakoa dela herri hizkuntza eta herri kulturaren zaintzeko eta garatzeko. Beste irakaspen bat zera da, hizkuntza borroka eta kultura borroka etengabekoak direla, gauza batzuk irabazten ditugu, beste batzuk galtzen, baina inportanteena da berdin jarraitzea. Hirugarren irakaspen bat ikusten dut: nazio kulturala, nazio zibikoa, burujabetza… horiek guztiak logika berean daude. Horrek erran nahi du borroka guztiak elkarrekin denbora berean eraman behar ditugula. Horrek ez du erran nahi garaipen guztiak egun batean lortuko ditugunik. Adibidez, quebectarrek badakite hizkuntzaren borroka irabazten, baina ez dakite erreferendumak irabazten. Inportanteena da borroka jarraitzea. Azken irakaspen bat ere bai: herri hizkuntzak eta herri kulturak nazioartekotu behar dira, eta horretarako Quebecen badute frankofonia, eta guk baditugu munduan zehar, Kanadan, Ipar Amerikan eta Hego Amerikan adibidez, diasporak. Harreman horiek onuragarriak izan daitezke guztientzat, hangoentzat eta hemengoentzat.

Julen Arexolaleiba (2010- 11-04)

Hirugarren edizio honen hasiera, jarri ditugu saio batzuk euskal kulturgintza bere parametroetan kokatzeko. Zeintzuk dira parametro horiek? Ba euskara bezalako hizkuntza batek gaur egun jokatzen dueneko joko-zelaia. Horren barnean ulertu behar dugu euskal kulturgintza, eta arlo teorikotik saiatu gara horren inguruko zertzelada batzuk ematen, hiru planotan: hiztunen planoan, hizkuntza komunitatearen planoan, eta lurraldearen funtzioen planoan, beti ere kontuan hartuta hizkuntza hiru elementu horien osagarritasunean ikusten dugula. Beraz, hizkuntza da hiztunek hizkuntza komunitateen eta talde sozialen bitartez eremu konkretuetan eta funtzio konkretuetan egin ahal duten hori. Alde horretatik, norbanakoari begira, ikusi dugu ze eratako tipo linguistikoak dauden hizkuntzetan, bai handietan eta bai txikiagoetan ere. Elebitasunaz hitz egiten dugunean ze eratako pertsona elebidunez ari gara? Zein eratako pertsona elebidunak behar ditu euskarak XXI. mendean? Hor azaldu zaigu hiztun oso edo euskaldun oso kontzeptua. Zer da hori? Ba bere beharrei egungo gizartean euskaraz erantzuteko adina gaitasun, motibazio… duen pertsona hori. Hor koka genezake, adibidez, euskal sortzailea bera. Euskal sortzailearen izaera, gaitasun linguistikoa, euskal kulturan aritzeko (sortzeko…) motibazioa, norengana iristeko anbizioa… hor sartzen dira. Alde horretatik, ikusi dugu gero eta inportantzia gehiago izango duen gai bat, asko inporta zaigula zenbatekoa den hiztunen kantitatea, eta hori bezain inportantea dela zer nolakoak diren hiztunak. Kantitateaz gain, horren parean eta garrantzia gero eta handiagoa emanez, hiztunen kalitatea hartu behar dugu aintzat.

Hizkuntza komunitatearen zerak ere berebiziko inportantzia dauka. Ez zaigu inporta zenbat hiztun garen, eta denok gaztelania edo frantsesa badakigula jakinda, euskararen behar erreala de facto desagertuta dago. Azkenean, euskaraz egin nahi dugu erdaraz egin ahal izanda ere, edo erdaraz eginda bakarrik, eroso sentitzen ez garenok. Orduan, hizkuntza komunitate horri nola eman forma? Euskal kulturari dagokionez, sormen lan hori nola hedatzen dugu gure inguruan? Ze bozgorailu jartzen dio euskal komunitateak produktu horiek gizarteratzeko? Ze funtziotan? Intimitatean eta gertuko komunitatean gauza bat da, lanean beste gauza bat da, eta hala herriaren planoan, nazioarenean, etab. Eta hor ikusi dugu hizkuntzak normalizatzen eta desorekatzen zer nola joaten diren. Eta, azkenik, apur bat lurraldeen eta funtzioen planoan aritu gara. Normalizaziorantz joatea zer da? Ba erdaraz egiten ditugun funtzio asko euskaraz egiten hastea. Horretarako, abiatzen garen egoeratik abiatuta, salto mortalik gabe, zer egin daitekeen aztertzen aritu gara. Orduan, hiru plano horietan ibili gara, hor kokatu dugu euskal kulturgintza, eta horrekin batera ariketa batzuk ere egin ditugu ikasleekin, jakiteko zeintzuk diren norberaren motibazioak eta desmotibazioak euskararekin eta euskal kulturarekin aritzeko, zein atzetik begira gaur egunera arte, eta zein gaur egunetik aurrera begira. Eta bestetik, norberaren eta norberaren senitartekoen eta tipo linguistikoen bilakaera zer nolakoa izan den, eta horiek optimizatzen joateko lehentasunak zeintzuk diren aztertu dugu. Ariketekin eta teoriarekin, uste dugu marko bat jartzen ari garela ikasturtean zehar jasoko ditugunak kokatzeko.

Imanol Lazkano eta Laxaro Azkune (2010-11-10)

Imanol Lazkano: Tira, nire kontakizunean saiatu naiz azaltzen nik bertsoa ezagutu nuen garaitik gaur artera bitartean zerk erakarri nauen, eta hor nola eroso sentitu naizen, eta ibili horretan gertatutako pasadizo batzuk kontatu ditut. Eta esan dut hasieran, polita izan da. Hori gaitzat hartuta, aztertu dugu belaunaldi desberdinen erabilera zein izan den bertsotan, eta garaian garaiko bertso izarrak nola izan diren, Txirritarengandik hasi, Basarri, Xabier Amuriza, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio… bertsolaritzari aldaketa eragin dioten izarrak. Gero, herriz herriko ibili hori ze polita izan den azaldu dugu, ze jende motarekin izan ditugun harremanak, Euskal Herriak izartzat dituen kantariekin, Ez dok hamahiruko talde osoarekin, herri kiroletako jendearekin, trikitilariekin… eta horiez gain, herrietan borondatezko lan xumea egiten duen jendearen ahalegina nola ezagutu dugun bertatik bertara.

Gero hitz egin dugu beste gai batzuez. Euskaltzaindiarekin hautsi zen garaia gogoratu dugu, orduan ez zidan grazia handirik egin, baina gerora konturatu gara, elkarteak izan duen bilakaerarekin, ia mesede eta dena izan zela hura.

Eta hala, bertsolaritzaren historia pixka bat janzten saiatu naiz, eta Laxarok ere mundu hori gertutik ezagutzeko aukera izan duenez, berak ere istorio batzuk kontatu ditu, eta horrela sortu dugu gaurko elkarrizketa.

Laxaro Azkune: Nire aldetik, aipatu beharko nuke umetatik etxean jaso dudan bertso zaletasun hori (oraindik ere imajinatzen dut gure sukaldeko isiltasuna Basarri eta Uztapideren arteko neurketak irratiz entzun bitartean). Zaletasun hori beti izan dut nik, bai seminarioan geroago, bai irakaskuntzan (umeekin bertsoak lantzeko ahalegin batzuk ere egin nituen), eta 83an irratira pasatu nintzenean bete-betean sartu nintzen mundu horretan, bertsolariekin harreman hurbila izan nuen, saioak jarraituz, txapelketak jarraituz, saioak irratian emanez… Ondoren, txapelketen antolaketan ere hasieratik sartu nintzen, gai-jartzaile taldea tokatu zitzaidan, eta talde hori eraikitzeko prozesu guzti horretan tartean ibili naiz, eta horrek izan dituen buruhauste zein gauza ederrak bizi izan ditut. Gai-jartzaile taldean genuen lagun giro hura gogoan dut, eta hori beti azpimarratu nahi izan dut, bai hor eta baita beste lanetan ere. Gaia jartzeko ofizioa bera ikasten joan naiz (gai ona zer den, gaia nola antolatu behar den, saioa nola antolatu behar den, txapelketako gai jartzea eta jaialdietako gai jartzearen artean dauden diferentziak…), lanean arituz eta besteekin konpartituz. Niretzat zorte handi bat izan da bertsozalea izanik bertsolariengandik hain hurbil ibiltzea, nire zaletasun horretan.

Azkenik, gaien aldetik zer nolako bilakaera gertatu den ere aztertu dut, 35-36ko txapelketatik hasi eta gaur egungo txapelketaraino. Horixe izanda egin dudanaren laburpena.

Jon Sarasua (2010-11-17)

Nire jarduna izan da euskaltasunaren norabidearen inguruan, etorkizun ikuspegiaren inguruan… hamahiru ideia plazaratu ditut taldearekin. Azken urteetan gai honen inguruan mamitu zaizkidan ideia batzuk dira, edo ideia horien laburpen moduko bat hamahiru baieztapenetan. Ez zait oso erraza egiten laburtzea, beharbada batzuk azpimarra nitzake, bereziki ideia bakoitzaren atzean garapen luze samar bat, debate bat… dagoelako. Abiatu naiz esatetik beharbada bitasun paradoxiko bat kudeatzera deituta gaudela gaur egun, euskararen garapenaren puntu honetan. Batetik, aurretik ditugun desafioen loditasunaren kontzientzia bat eduki behar genuke. Egia esanda, ez gaude ondo, ez egon gintezken ondoen ere, urte batzuk galdu dira zenbait kontutan, alarma gorri batzuk pizten hasi dira beste gai batzuetan… kezkatuta egoteko motiboak badira. Bestetik, egin denaren handiaz ohartzea dagokigu. Denon artean, eta sektorerik baztertu gabe, 50 urte hauetan euskalgintza modernoaren aro honetan egin denaren handiaz ohartu behar dugu, eta hori kudeatu nolabait, ez botila betea eta botila hutsa ikusiz, baizik eta zulotxo bat daukan botila sorgin honetan bete dena asko dela aitortuz eta hortik abiatuz, eta aldi berean desafioak benetan inportanteak eta lodiak direla jakinik, eta hor beherapenik egin gabe.

Hortik abiatu naiz, eta ondoren etorkizunera begira izan ditzakegun helduleku batzuk, estrategia batzuk… aletzen joan naiz, orain arte funtzionatu duten hainbat ideia zalantzan jarriz. Edonola ere, nire ideiak ez dira batere akademikoak, edo behintzat ez dute indarra hor zentratzen. Ideia organikoak dira, organoetan pentsatuz eta euskalgintzan ari diren azpiegitura eta erakunde errealen estrategietan pentsatuak eta hortik eginak. Zentzu horretan, hasieran agertu dut arrangura bat: falta izan zaigula pentsamendu organikoa arreta gehien jarri zaien euskal idazle eta pentsalarien artean. Batzuetan, oso pentsamendu zerutiar edo inofentsiboa egin ote den… ez diet beraiei hori aurpegiratu nahi, beharbada zenbait idazle edo nobelagileren funtzioa hori da. Pena da arreta horietan jartzea, eta ez ohartzea hizkuntzaren garapenak baduela berariazko jakintza bat, hor ere badaudela unibertsal batzuk. Ezin dela ekonomiaz hitz egin, Marx, Adam Smith eta neoklasikoak ezagutu gabe, eta ezin dela hizkuntzaren garapenaz hitz egin zenbait gauza minimoki ezagutu gabe. Eta askotan hor oso zorroztasun gutxiko hizkuntza pentsamendua egin delako, eta bestetik, egin denean hizkuntzaren inguruko jakintza garapen zorrotza, periferian geratu delako. Uste dut hor badagoela zeregin bat hizkuntzaren berrekurapenaren inguruko jakintza ezagutzen, eta jakintza hori garatzen. Uste dut horretan euskal komunitateari badagokiola arduratxo bat.

Gero hitz egin dut baita ere iragana birkokatzeaz, uste dut gure iragana, zahartasuna eta iraganeko sustraiak kokatzean ere badugula ondo kokatu gabeko debate bat, nolabait iraganaren entusiasten eta iraganaren ukatzaile sutsuen artean, eta beste patxada batekin begiratu beharko genieke gure sustraiei eta hor egiten ari diren ikerketei. Motibazioaren inguruan ere iruditzen zait baditugula bi adar nagusi, nahiz eta motibazio pertsonala oso konplikatua den. Bata da fluxuaren nozioa, fluxuaren parte izatearen nozio oso gizatiar horrek bizi gaituela neurri batean, eta ez bakarrik zentzu kulturalean. Bestetik, euskararen balio erantsia, zein izango ote den hurrengo belaunaldiek euskaraz bizitzeko hautua egingo dutenean beraien motibazioaren funtsa, eta hor pixka bat egin

behar dugula motibazio prospektiba bat… hor badira ideia interesgarri batzuk, denon artean konpartituak.

Ondoren, kokatu dut kulturgintzaren garrantzia. Hemen ideia inportante bat: askotan kokatzen dugu euskalduna hiritar estandar baten eskeman, baina "bai eta ez". Noski, hiritar estandarraren eskeman kokatu behar dugu, merkatu parametroetan etab. Baina bestetik, euskaldun izateak nahimen prozesu bat eskatzen du, orain arte eskatu digu, eta gure seme-alabei ere eskatuko die. Zentzu horretan, nahimen hori elikatu egin da, eta elikatzea beste biderik ez daukagu. Nahimen hori ez da elikatzen parametro instituzional estandarretatik (instituzio moduan ulertuta bai estatua eta bai merkatua), hori baino dimentsio gehiago lantzea eskatzen du. Gero aipatu dut gure kulturgintzak etengabe egiten duen tentsio bat, jarraiduraren eta irekiduraren artean. Jarraidura, sen gizakoi funtsezko hori, garen fluxuari jarraipena emateko sen hori. Eta bestetik, irekidura, dagoenera, datorrenera, garaiak dakarkienera, teknologiak dakarkienera… irekitzea. Etengabe, binomio hori egiten asmatu duen historia bat izan da gurea, eta hori izan daiteke gure jarraiduraren gakoetako bat. Gaur egun, hori egin behar dela esatea erraza da, baia hori nola egin, hori zentzun, tentuz eta kalitateaz egitea da kulturaren zoriaren gako bat, eta hortaz jardun dugu.

Hegemonia guneez ere aritu naiz. Azkenean, hegemonia nitxoak eduki beste erremediorik ez dauka hizkuntza batek. Asmatu behar dugu hegemonia lurralderik gabeko sare izaten, horretara kondenatuta gaude behintzat belaunaldi honetan. Bestetik, hegemonia lurraldearen gaia politikoki une honetan lantzea ezinezkoa izanik, etorkizunean hori lantzeko pausuak eman behar dira. Tarteko estrategia nagusiak, berriz, izan behar luke "hegemonia lurraldea" sortzea, lurralde modu metaforikoan ulertuta. "Hegemonia lurralde" bat da fakultate hau, ikastola bat, Bertsozale Elkartea, azken batean, euskara sortu eta birsortuko duten guneen sorrera. Pixka bat dialektikoa da lurraldeen eta hegemonia guneen gaia.

Egin dugu baita ere planteamendu instituzional bat, merkatu logika lukratiboarekin, estatu logika administratibo burokratikoarekin, eta gizarte antolatuaren logika baloratibo desberdinekin. Hiru logika multzo horien arteko elkarreragina izango da etorkizuna, publiko/pribatu binomio hori pixka bat gainditu z. Hor, bereziki euskalgintzatik egin beharreko gogoeta bat, ikusiz euskalgintzak batez ere gizarte antolatuaren esparrutik atera dituela neurri handi batean babarrunak eltzetik bost hamarkada hauetan, eta etorkizunean ere paper funtsezkoa beteko dutela gizarte antolatuaren indarrek. Eta bestetik euskaldunon kasuan, gizarte-ehun gertukoaren igurtziak izango duen garrantzia euskaldun izatearen nahimena biziberritzeko, eta horretan ze miopeak edo desenfokatuak diren gaur egungo begirada estandar asko, euskaltasunaren etorkizuna pentsatzerakoan.

Gero hitz egin dugu pixka bat migrazioen aurrean, ez dagokigula migrazioen eta kultur aniztasunaren inguruko produkzio intelektual politikoki korrektoa irenstea eta horren euskal bertsio bat egitea, ez delako hori une honetan guretzako funtzionala, ez gaudelako Londresen, non hizkuntza baten hegemonia aski ziurtatuta dagoen. Gu gauden egoeran anfitrioitza oso desberdin bat garatzea dagokigu hizkuntza migratuekiko, hor ditugun potentzialak, arriskuak etab.-en inguruan. Gero, apur bat nazioartekotasunaren inguruan ere jardun dugu. Uste dut nazioarteko dimentsioa lantzea euskararen komunitatearen potentzial handienetako bat dela, eta hor badagoela lan bat egiteko, nolabait hasia (herri indigenekin sortua dago adar bat..), baina beste hainbat arlotan ere egin daitekeena.

Azkenik, gogoeta bat egin dut etorkizun ikuspegiak lantzeaz. Nola gatozen pixka bat amets frustratuaren belaunalditik, bai amets soziopolitikoaren mailan, eta bai amets kulturalaren mailan ere. Nolanahi ere, oso arriskutsua da ametsetatik dimititzea, egin behar dena da ametsak doitu eta gure benetako ahalbideetatik zubia egiteko moduko ametsak sortu. Amets berrien sorkuntza eta doikuntza batera deituta gaude, zubia galdu gabe, benetan egin dezakegunetatik ametsak urrutiegi jarri gabe, eta aurreko belaunaldien akatsetatik ikasiz.

Andoni Egaña (2010-11-17)

Bertsolaritzaz aritu naiz, aldez aurretik egindako gidoi bati segika. Hasieratik galdera zen zergatik euskal kulturgintzan gune berotzat hartzen den bertsolaritza. Segur aski ikusi dutelako bertsoena dela esparru bat autoantolatzen asmatu duguna, nahiko ongi detektatu duguna zein diren zutabe garrantzitsuenak (transmisioa, hedapena, ikerkuntza…), eta ikusi dutelako bertsolaritzaren garapena joan diren 30 urteetan. Horregatik izango gara segur aski gune bero. Bestetik, iruditzen zait gaurko gizartearentzat baliotzat har daitekeen zerbait badatzala bertsolaritzan, ia hutsetik zerbait ateratze hori. Eta gaur egun ohituak gaude baliabide askorekin zerbait egiten, eta beno, nik uste dut gure estiloa kontrakoa dela, ia ezer gabe zerbait egitea, prekarioan sukaldean aritzea bezala. Eta uste dut izaeraz ere halakoak garela bertsolariok, niri ez eman txuleta bat eta Soriatik ekarritako galeperrak sozietatean prestatzeko, ez baitakit. Baina tira, frigorifiko batean tipula bat, piper berdea, arrautza bat eta beste zerbait badago, egingo dizut zerbait. Uste dut badela hori, prekarietatean eta sotiltasunean ohitutako ekimen mota bati zaion miresmena-edo

Hurrengo galdera zen ea Bertsozale Elkarteak ze ezagugarri izan ditzakeen, eta nik uste dut baduela bat behintzat nabarmena, oso elkarte atipikoa dela, bertan bertsolari eta bertsozaleek nahasian egiten dugu lan orpoz orpo, eta aldi berean lan profesionala eta borondatezko lana egiten dutenek ere nahasian egiten dugu. Planteamenduz atipikoa da eta funtzionatu du orain arte. Beste kontu bat da ni-a eta gu-a nola uztar litezkeen. Nik behintzat natural. Ez dut uste bertsolariok izar izaera ikaragarririk dugunik, eta beraz, gu-an txertatzen erraz samar asmatzen dugu. Bestalde, gu hori gabe ezer ez gara bertsolariok gure lanbide beretik, inoiz ez gara jaisten oholtzatik esanez "earki jardun nauk", baizik eta "earki jardun gara", edo "ez gaituk earki jardun", beti kolektiboa da lana. Beraz, ez dut uste gure aldetik uko egiteko kontua denik ni-a gu-aren baitan txertatzea. Bestalde, esan behar da Bertsozale Elkartean beti ezagutu izan dudala kontsentsuaren jarduera. Nik gogoan dudala, behin bakarrik heldu gara bozketa egitera, eta horrek esan nahi du iritzi kontrajarriak apurka elkarrengana bilduz batzuk besteak konbentzitu egiten genituela, edo hurrengoan alderantziz gertatzen zitzaigula besteen iritziekin. Uste dut bertso jardunak baduela ezaugarri bat, berriz ere bere sotiltasunean oinarritzen dena, ertzeko izatea ahalbidetzen diguna sortzaileoi, eta da eskuak patrikan sartuta joaten garela eta eskuak patrikan sartuta bueltatu. Ez dugu behar bitarteko ikaragarririk, eta nik uste dut formatu horretan eroso sentitzen naizela. Nire ideologiaren oinarrietan dago nik neurea neuk egitea, ez delegatzea, ez subkontratatzea… eta beno, bitartekari eta bitarteko handirik gabe lan egiteak ahalbidetzen digu gure bizimodu horri eustea, aski atipikoa segur aski egungo gizarterako.

Beste galderetako bat zen gure belaunaldiak ze ekarpen egin dion bertsolaritzari. Nik kolektiboki aipatuko nuke lehen belaunaldia izan dela gurea bertsolaritza zabaltzeko aukerak izan dituena. Gure obsesioa hori izan da, bertsolaritza zabaltzea, hedabideetara irits zedin, dokumentazio zentro bat izan zezan, bertso-eskolak sor genitzan, bertsolaritzari buruzko publikazioak sortzeko, etab. Hori izan da gure obsesioa, orain igual zabaldu samar dagoelarik, sakontzea izango da hurrengo belaunaldien helburua? Ez dakit, akaso komeni da. Aritu naiz baita ere bertsolaritzara emakumeak iristean sumatu ditugun aldaketei buruz ere. Emakumeak jendaurrean egoteko beste modu bat

duela iruditzen zait, eta jendaurrean ez dela edonola egonda konformatzen. Segur aski, jendaurrera oso ezkututik iritsi delako gero jendaurrean dagoenean egon nahi du benetan bere barne-ahotsak agintzen dion bezala. Gizonezkoak uste dut zabarragoak garela horretan, jendaurrera irten eta beno, pasa behar duena pasako da etab. Izan ere, jendaurreko balioak beti oso gizonezkoenak izan dira, eta emakumeak horra azaltzean eroso sentitzeko egin behar izan duten ahalegina sumatzen da onerako eurengan eta gizonezkoengan, eta baita ere euren emaitza artistikoan, begirada findu dutelako gizonezkoek baino gehiago.

Erdal munduari buruz ere aritu naiz. Pasadizo batzuk kontatu ditut, bertsolaritza sozializatzean denetarik gertatzen delako, eta erdal munduko jendearekin ere badugulako igurtzia, eta erdal munduak, euskal mundua bezala, askotarikoa delako. Denetik topatu daiteke, euskara ikasi eta bertsoa ulertzeko gogoa, ahalmena baina lotsa, topa liteke oraindik ere bere burua zuritzen duena esanez euskara hildako hizkuntza bat dela… denetik topatzen dugu hor ere. Nik uste oreka batzuk aurkitzea garrantzitsua litzatekeela, hurbiltzen segi behar dugula, baina erabat ahia ahoraino eraman gabe, beharrik sentitzen ez badute alferrik ari garelako.

Iñigo Iñurrategi (2010-11-24)

Gaurko saioan landu dugu alde batetik munduko hizkuntzen egoera, bigarren zati batean euskarak edo euskalgintzak munduko hizkuntza horien aurrean joka dezakeen paperaren inguruan aritu gara, eta azken zatian saiatu naiz Garabide proiektua azaltzen.

Lehen zatiari dagokionez, ikusi dugu nola hiztunen edo biztanleen %96k hizkuntzen %4 hitz egiten duen, eta biztanleen %4k hizkuntzen %96. Panorama horretatik abiatuta, hizkuntza ekologiaren ikuspegia azaldu dut. Zientzia moduan, hizkuntza ekologia, ekologia oro bezala, saiatzen da hizkuntza bere ingurunearekin harremanean azaltzen edo harreman hori nola gauzatzen den azaltzen. Hizkuntzaren ingurunea konplexua da eta, beraz, zientzia edo ezagutza arlo askotatik kontuan hartu beharrekoa, eta hori ordenatzen laguntzen digu hizkuntza ekologiak. Ekologia biologikoak guregan zabaldu dituen balio horiek berdin funtzionatzen dute hizkuntzen mailan, hizkuntza guztiak berdinak dira, interdependentzian daude, eta garrantzitsua da aniztasuna bera.

Azkenik, hirugarren atalean etorkizunera begira zer egin aztertu dugu. Hor, marraztu ditugu orokorrean iraunkortasunaren baldintzak zeintzuk liratekeen eta maila politikoan hartu beharreko erabakiak. Galdera izan da ea baden erronka bat zentzua daukana euskalgintzarentzat gainontzeko hizkuntzekin lankidetzan jardutea. Eta hori argudiatzeko, hizkuntza ekologiak ematen dizkigun elementuak inportanteak dira, baina badira gehiago. Lehen elementuetako bat litzateke eskubidea bera. Ikusi dugu nola eskubideen munduan, hasi norbanakoaren eskubideak finkatzen dituen Nazio Batuek onartutako deklarazio unibertsaletik, eta 50. hamarkadatik gaur egun arte eskubideetan egon den bilakaeraraino, norbanakotik eskubide kolektiboagoetara. Hor kokatu ditugu baita ere herri indigenen eskubideak. Hauei dagokienez, errealitate berezi bat dira munduan, errealitate pobre bat, pobrea dela bereziki azpimarratuta. Errealitate pobre bat da, ez zentzu *per capita*-n bakarrik, baizik eta neurgailu kalorikoak erabilita, ze gose pasatzen duten jakinda. Guretzat, hori ere bada herri indigenekin lan egiteko motibo bat, beraien egoera horretatik irteten laguntzea. Ikusten dugu egoera horretatik irteteko modu bat dela beraien identitate kolektiboa, gu-tasuna, auto-estima sendotzea.

Garabideri buruz esan dut azken lau urteetan euskalgintzaren esperientzia sistematizatu duela, forma eman, eta hortik herrialde indigenei gure esperientzia azaldu. Horretarako, urtero truke programa bat jartzen da martxan, dozena bat lagun etortzen dira hiru bat astetan, eta euskalgintza bertatik bertara ezagutzen dute. Horretaz aparte, bakoitzaren hizkuntza komunitateko beharrak aztertzen ditugu, proiektuak definitu, eta posible bada proiektu zehatzetan lagundu. Normalean, zuzenean gabe, saiatzen gara euskalgintzako erakunde desberdinak kontaktuan jartzen tokian tokiko erakunde indigenekin, eta beraien artean proiektuak burutzea. Une honetan, Garabidek esku artean baditu programak eta beste proiektu konkretu batzuk martxan, eta datorren urterako agian jarriko dugu gradu-ondoko bat hizkuntzen berreskurapenean adituak formatzeko.

Ibon Rodriguez (2010-12-01)

Tira, ni iaz hemen ikasle ibili nintzen, eta orduan egindako lana aurkeztu dut gaur. Azaldu dut zergatik Mikel Laboa iruditzen zaidan giltzarri euskal kulturaren transmisioan (edo orokorrago, *euskal* kenduta, kulturaren transmisioan), zergatik izan den horretan bete-betean asmatu duen artista gutxi horietako bat. Nola Laboaren lanean gauza asko batzen diren, aurkezpena hiru zutabetan banatzea erabaki dut, izan ere, haren lan guztietan aurki daitezke etengabe errepikatzen diren hiru ezaugarri, hasiera batean elkarren artean kontrajarriak diruditenak, baina Mikelen musikan ezin hobeto gorpuzten direnak: herri kantuen modernizazioa, kantu berrien sorrera, eta esperimentazioa. 1958an Bartzelonara joan zen eta *Nova Canço*-aren inguruan loratzen ari zen mugimendua ezagutu zuen, zeinak hizkuntza berreskuratzea eta kultura berpiztea zituen helburu. Mugimendu hark asko eragin zion Laboari, eta lehen diskoa atera ostean egindako elkarrizketa batean Mikelek aipatzen du bizarra moztu bitartean entzuteko kantuak behar zirela. Ordura arte, hemen abesbatzak, otxoteak eta abar aditzen ziren, eta kantu berriak behar genituen, modernoak, nik gaur egun *pop* deitzen ditudanak. Laboak ezin hobeto lortu du bere kantuak gizarteak barneratzea, eta hamarkada batzuk barru kantu horiek herri kantu izango dira, ez dute autoretzarik izango. Hori da edozein artistak amesten duena. Eta lehen esandakoari dagokionez, alegia, bere musikako hiru zutabeenari buruz, esan bereizita doazela baina aldi berean sortzen dutela elkarren artean halako amaraun bat: herri kantuen berreskuratzeak gizarte tradizionalera eramaten gaitu, kantu berriak sortzeak modernitatera, eta esperimentazioa postmodernitatearekin lotuta egon liteke, beste bide batzuk bilatzeko joera horrekin, abangoardiak eta horiekin guztiekin. Hiru zutabe horiek ezaugarri askotan mamitzen dira. Alde batetik, sonoritatean. Herri kulturan txertatuta dauden instrumentu batzuk erabiltzen ditu, trikitixa, txalaparta, irrintziak eta abar. Horiez gain, gitarra espainola, elektrikoa, eta antzekoak ere erabili zituen, nolabait 60ko hamarkadako sonoritatea biltzen zutenak. Azkenik, esperimentazioari dagokionez, ateak irekita zituen sintetizadoreak eta samplerrak erabiltzeko, inprobisazioa muturrera eramateko ez zuen inolako arazorik. Azpimarratzekoa da esperimentazioan oso bere kabuz hasi zela Laboa, eta jendearen harrera askotan txarra izaten zen. Bera, ordea, tematuta zegoen bere ideiekin eta aurrera egiten zuen. Orduan, John Cage edota Roy Head bezalako artistak ezagutu zituenean, deskubritu zuen jende gehiago bazebilela mundu horretan, eta oso babestuta sentitu zen. Esan daiteke ziklo osoa bete duela: zaharra berreskuratu du, kantu berriak sortu ditu, eta gazteek edo hurrengo belaunaldiek jaso dute bere ekarpena.

Joxerra Gartzia (2010-12-15)

Niri eskatu zitzaidan azken aldiko kultur politiken inguruko balantze kritiko bat egitea. Balantze kritikoa normalean atzera begira egiten den zerbait da, baina saiatu naiz ea hortik gerora begirako pistarik edo atera zitekeen. Ez nuen gauza zientifiko-objektiborik egiteko batere gogorik, premiarik ere ez nuen sentitzen, eta orduan nire bizipenetatik abiatu eta 1975etik gaur egun arte euskal kultura garatzeko egin diren ekimen nagusienen errepasoa egin dut, klabeak non ikusten nituen azaltze aldera. Labur esanda, Franco hiltzean dena zen erdalgintza, eta lehen euskal kulturaren arrastoak ez dira instituzioetatik sortzen, herri ekimenetik baino. Hor zeresan handia izan zuen AEK-k. Nahiz eta AEK euskalgintzaren barruko mugimendua izan, segituan sortu zen bertatik Euskal Kulturaren Batzarra (EKB), euskal eskola akademikoak bakarrik ematea ez baitzen aurrera egiteko modua. Hor bazen intuizio bat, niretzat oso zuzena dena: ezin da ulertu euskalgintza euskal kulturaren beste adarretatik bananduta, eta era berean, euskal kultura ez dago ulertzerik euskalgintzarik gabe. EKBtik sortu zen Kontseilua, eta herri ekimenetik sortutako ildo handi bat. Horren parean, zoritxarrez, hemengo instituzio gehienek herrigintzaren kontrako programazioa egiten zuten, eta AEK sortzearekin bat gauza handirik zegoenik harik eta 1982an euskara normalizatzeko legea sortu zen arte (eta HABE sortu zen, nahiko modu egituratu gabean banatzen ziren diru laguntzak, eta ez zirudien horrekin batera, ETB). Esango nuke 1997an itzuli handia hartzen duela kontuak, Guggenheimen inaugurazioarekin, izan ere diru laguntza txikietatik makro-egituretara egiten da jauzi, nik txabolismo deitzen dudan horretara, eta horrek hipotekatu zuen euskal kulturgintzan genbiltzan guztion jarduna. Ni une hartan Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari nintzen, eta murrizketak oso handiak izan ziren. Nik beti ikusi ditut bi ildo horiek, instituzioena eta herrigintzakoa, beti elkarren kontra, eta askotan bazirudien proiektu desberdintasunak baino gehiago zirela protagonismo eztabaidak. Hala jarraitu zuen 1997tik 2009ra arte, eta urte horretan bi aldeetan sortzen da balantze bat egiteko premia. Bi aldeek aldarrikatzen dute aro berri bat beharrezkoa dela, eta alde berean HUHEZIko Sorguneak ikertegiak Gipuzkoako Foru Aldundirako hirugarren bide bat proposatzen du, euskara eta euskal kultura ardatz dituena, eta nire ustez badena zerbait, balio dezakeena, orain arteko ika-mika horiek baretzeko. Uste dut hobe dugula aldez edo moldez euskararen alde gaudenok bat egitea, eta gure artean izan ditzakegun desadostasunak alde batera utzi, zeren eta instituzio nagusietatik (Jaurlaritzatik eta) datozen politiketan garbi dago euskara hutsaren hurrengo elementua dela, elementu dekoratibo hutsa, eta guk asmatu behar dugu euskararen sua bizitzen, bestela hortik datorren urak amatatuko gaituelako erabat.

Aitzpea Leizaola (2011-01-12)

Aurkezpen honetara doktorego tesirako egindako lana ekarri dut. Berez gizarte antropologiarako aurkeztutako doktorego tesia da, mugen inguruan zentratua, gizarte antropologiaren ikuspegitik mugen antropologiaren korrontean kokatuko genukeena, eta antropologia politikoaren garapenarekin estuki lotua. Azken finean, ikertu nahi izan dut mugaren eragina mugaren inguruko biztanleriaren bizitzan eta haiek dituzten errepresentazioen esparruan. Euskaraz muga hitzak hainbat adiera ditu: batetik, espazioari eta denborari dagozkion bereizketak edo definizio esparruak gauzatzen dituztenak, eta beste alde batetik, badira bi esanahi gehiago ere, itxuraz kontrajarriak, helmuga edo helburua, eta oztopoarekin zerikusia izango lukeen beste bat. Nire kasuan, bereziki muga politikoez jardun dut, Euskal Herria bitan zatitzen duen estatuen mugaren testuinguruan, Nafarroan eta Lapurdiko partean, bereziki. Horretarako, landa lanean aritu nintzen Xaretako eskualdean, Sara eta Zugarramurdin bereziki, eta baita, neurri txikiagoan eta helburu konparatibo batekin, Luzaiden eta Aezkoa inguruan. Aztertu dut nola mugako biztanleak mugan bizi diren, eta mugatik bizi diren, nola itxura batean populazio bat bitan zatitzen duen oztopo bat bilakatu duten baliabide aberats batetan, ez soilik ekonomia formal eta informalaren garapenari lotuta, mugaz gaindiko harremanei baizik. Aztertu dut mugaldeko jendeak zer nola eraikitzen, maneiatzen, edo birmoldatzen duen bere identitatea, eta baita identitate horrekin lotutako errepresentazioak ere. Adibide desberdinak aztertu ditut: alde batetik, kontrabandoaren errepresentazioarekin lotutakoak, edo benten kasuan, identitate nazionalen eraikuntzan zer nolako joko eta harreman sortzen diren bereziki mugakoak diren establezimendu horietan. Hor sartzen dira komertzioaren atala, taberna edo jatetxearen izaera, eta horiek guztiak gaur egun muga-turismoaren baitan garapen berezi bat izan dute. Finean, antropologiaren ikuspegitik, XX. mende amaierako eta XXI. mende hasierako bilakaera horiek guztiak zer nola gauzatu diren ekarri nahi izan dut hona.

Nekane Goikoetxea (2011-01-19)

Tira, nire helburua izan da orain hastera goazen diakroniaren modulua kokatzea. Atzera begira jarri gara, batez ere, atzeak zer irakasten digun ekartzeko gugana, diakroniak zer erakusten digun. Horrez gain, aurreko saioetan izan ditugun hainbat hizlariren edukiak ekarri ditut klasera, Xamarrenak edo Koldo Zuazorenak esaterako, eta saiatu naiz kokatzen diakroniaren gaiaren arabera aurrerantzean etorriko direnak, nola koka ditzakegun elizaren ekarpenak, edo lokala lantzearenak, Eibarko euskara sozialaren historiatik zer dugun ikasteko… pixka bat horretan aritu naiz.

Mari Luz Esteban (2011-01-19)

Emakumeak, gizonak, eta euskal kultura izenburua ipini diot hitzaldiari, emakumeen eta gizonen arteko egoera lotu nahi bainuen euskal kulturgintzaren gaiarekin, argazki orokor bat eskaini asmoz. Denbora gehien diagnostikoari eskaini diot. Une honetan esan daiteke Euskal Herrian aldaketa nabarmenak eman direla generoari dagokionez, edo emakume eta gizonen arteko harremanari dagokionez. Gainera, aldaketa testuinguru batean gaude. Horrek ez du esan nahi parekidetasun baterantz joango garenik, atzerakadak egon daitezke, baina une interesgarri batean gaude. Arloz arlo zein egoeratan gauden aztertu dut ondoren. Kontzientzia feministari dagokionez, euskal kulturgintzan ongien dabiltzan arloak bertsolaritza eta literatura dira, eta baita feminismoa bera ere, mugimendu eta teoria moduan hartuta, niretzat feminismoa ere badelako euskal kultura. Bost analisi ardatz proposatu ditut: emakumeen ikusezintasuna/emakumeen gain-ikusezintasuna, mitologiaren interpretazioak eta ajeak, maskulino/femenino edo gizontasun/emetasun dikotomiaren mugak eta esentzialismoaren arriskuak, arlo batzuetan behar den berrikuspena (*ez gara hain progreak* izenburupean), eta azkenik, zentroak eta periferiak. Bi hitz esango ditut ardatz batzuei buruz.

- Ikusezintasuna/Gain-ikusezintasuna: esan nahi izan dut ez soilik emakume sortzaileak ez daudela ikusgai, baizik eta batzuetan aitorpen arazo bat daukagula. Askotan aitorpen kolektiboa egiten zaie, baina gutxiagotan aipatzen dira izen propioak, eta beharrezkoa da hori.

- Euskal mitologiaren ajeak: euskal matriarkatua eta Mariren mitoari buruz aritu naiz, eta esan dut euskal kulturan azken 20-30 urteetan mito horren interpretazio asko egon direla, eta nik horren alde jotzen dudala. Niretzat oso baliagarria da hainbat egilek esan dutena, hots, Mari errebelde eta intsumiso bat erretratatu dute, eta ez horrenbeste matriarka edo Mari ama.

- Zentroak eta periferiak: ardatz hau baliagarria da ez soilik emakumeok non gauden ikusteko, baizik eta euskal kulturgintzan hegemoniak non dauden identifikatzeko, nortzuk dauden periferian, ze harreman dagoen hegemonia eta periferia horien artean (harreman hori bereziki interesatzen zait). Alegia, periferian gaude emakumeok, baina egiten dugunak nola aldatzen du zentroa?

Beste asmo bat ere banuen: azterketa feminista bat beti partziala dela erakustea, euskal kulturako edozein azterketa partziala den modu berean. Baina partzialak eta osoak dira aldi berean, baliagarriak ulertzeko feministok euskal kulturan non gauden, zer egin nahi dugun, eta abar.

Jon Irazabal eta Gotzon Barandiaran (2011-01-26)

Jon Irazabal: Gaurko berriketaldian apur bat ikusi dugu ze bide egin duen Durangoko Liburu eta Disko Azokak, ze arazo dituen, ze etorkizun izan dezakeen, eta barrutik nola ikusten den horrelako proiektu bat. Izan ere, askotan bisitaria ez da ohartzen urtean zehar egin behar den lan guztiaz, bai ekonomikoki babesleek ze baldintza jartzen dituzten, ze aukera sozial eta politiko ematen dituen horrek, eta barne ikuspegi hori azaltzea izan da gaurko helburua.

Gotzon Barandiaran: Ni hona etorri naiz ez soilik nire izenean hitz egitera, ezpada gogoeta kolektibo batzuek ateratako ondorioak plazaratzera. Alde batetik, literatura eskolatik sortutako LIteraturia, Eako poesia egunak, eta Ahotsenea bera nondik sortu diren azaldu dut, eta azpimarratu dut nola autogestiotik hasita, geure burua osatzeko gogoeta batetik hasita, osatu dugun Euskal Herri mailako sare bat euskarazko kulturaren inguruan. Ondoren, nire ustez euskalgintzak edo kulturgintzak dituen gabezi nagusiez aritu naiz. Euskalgintzak ez du hizkuntza politika eta kultur politika erabakitzen, eta datuek babes sozial nahikoa duela erakusten dutenez, pausu bat haratago eman behar du euskarazko kulturgintzak: auzolana hasi behar dugu, irakurketa eta estrategia komunak egin behar ditugu, guztion artean erabaki behar dugu euskara eta euskarazko kulturgintza zein norabidetan eraman, horrela lortuko baitugu interlokutore izatea eta baldintza politikoak ezarriko dituen eragile bat izatea. Hori bai, geure proiektuak estrategikoenak direla pentsatzeari utzi behar diogu, badaude beste proiektu batzuk geurea besteko estrategikoak direnak, edo gehiago. Elkarrengana hurbildu behar dugu, batak besteari entzun, eta horren arabera diseinatu euskara eta euskarazko kultura normalizatzeko estrategiak.

Dionisio Amondarain (2011-02-02)

Nik azaldu dut gehien bat elizak ze harrera egin dion euskarari, eta ze tratamendu eman dion. Erdi Aroan jendea euskarari oso atxikia zegoen. Erregeak eurak, lehendabizikoak behintzat, euskaldunak ziren, nafarrak. Gero etorri ziren dinastiak, eta haiek ez zuten euskararik ikasi. Euskara idatzirik, ordea, ez da askorik ezagutzen Erdi Aroan. Aro modernoan, 1512tik aurrera, boom bat izan zen, batez ere Iparraldean, idatziaren aldetik. Salto handia izan zen ahozkotik idatzira pasatzera. XVIII. mendean hasten dira Larramendi eta beste batzuk jendea zirikatzen. 1900tik aurrera beste boom bat izan zen, herri mailako idazleengan eta euskarazkoengan. Hor sortu ziren idazle pila bat, aldizkariak… 1930ean publikatu zen Gasteizko Olabideren Itun Berria. Gerratean, berriz, jokabide kaxkarra izan zuen Erromako aldeak, hasieran dudan, kolokan, ibili ziren, baina ikusi zutenean Franco aurrea zihoala, haren alde jarri ziren. Ordurako, Mateo Mujikak desterrura joan behar izan zuen. Gero beste gotzain sail bat etorri zen, denak Francoren morroi izan zirenak, harik eta Vatikanoaren II. Kontzilioa heldu zen arte. Ordura arte, latina izaten zen gure elizkizunetan, hitzalditxoren bat beharbada egiten zen euskaraz, baina beste guztia latinez. Baina Kontzilioaren ostean, Erromatik eskatzen zuten hizkuntza bakoitzean behar zuela testuak, eta hori ez zuten ongi ulertzen hemengo gotzainek. Bilera bat egin zen Urretxun apaiz eta erlijiosoen artean, eta han atera zuten idazki bat, bultzada bat emateko Donostiako gotzainari. Ondoren, gotzain guztiak bildu ziren, euskal elizbarruti guztietakoak, eta azkenean erabaki zen batzorde bat egitea testuak euskaratzeko. Azkenean, lortu genuen. Hala ere, azpimarratu behar da eliztar horiek muzin egin ziotela berriro ere euskara batuari. 1968an Arantzazun izan zen erabaki hura, eta muzin egin zioten. Hala ere, aurrera jarraitu genuen, eta batzuk Biblia euskara batuan euskaratzen hasi ginen (orduan atera zen Elizen arteko Biblia, besteak beste). Iparraldean ere Marcel Etxeandi beneditarrak egin zuen egokitzapena edo euskaratzea, hegoaldekoan oinarrituta. Ez zuen Lapurdi eta Behe Nafarrerakoa bakarrik egin, Zubereraz ere argitaratu zen Itun berria euskaraz. Gauza bitxi bezala, hainbat Itun-Berri publikatu ditugu, tartean niretzat altxor bat den zerbait, hiru eleduna (euskaraz, latinez eta grekoz). 500 ale atera ziren, ez dakit zenbat gelditzen diren, jende "xelebrea" izaten baita oraindik ere halakoak nahi izaten dituena.

Antton Narbaiza (2011-02-02)

Gaurko aurkezpena izan da euskararen minorizazioaren historia. Horrela esanda hitz handia ematen du jardunaldi batean emateko. Noski, egin dut laburpen bat, lau puntutan planteatu ditut nire ideiak:

- Estatu zapaltzaileek (Frantziak eta Espainiak) ze eragin izan duten euskararen galeran. Benetan egon da historian zehar (1936ra arte) plan artikulatu bat estatuen aldetik hizkuntza periferikoak edo eremu urrikoak hondoratzeko? Hori zen lehen galdera, apur bat kitzikagarria.

- Estatu irakaskuntzaren rola, XIX. eta XX. mendean.

- Euskararen inguruko ideologiek ze eragin izan zuten euskararen diskurtsoaren bilakaeran. Noski, euskarak diskurtso bat izan zuen, aldekoa edo kontrakoa, baina diskurtsoa finean.

- Euskaldunak egin al du ezer bere hizkuntzaren alde? Zeren, noski, linealki hartzen badugu, eta dena izan bada euskararen jazarpena historikoki, nola demontre bizi gara horrenbeste urteren ondoren euskaraz? Hor aztertu dut euskaldun elebakarraren bilakaera eta tratamendua hizkuntza eskakizunaren inguruan. Nolabait esateko, hor ikusten da elebakarrek izan zuten "protagonismoa", beren zinegotzi, alkate etab.-en bitartez, XIX. mende erdialdetik XX. mendera artean. Beti ere, Gipuzkoan, Gerra Zibila hasi artean.

Paulo Iztueta (2011-02-09)

Gaur eman dudan gaia izan da *Euskara eta euskal kulturaren egoera gerra-aurre hurbilean eta gerraoste hurbilean.* Gerra-aurreari dagokionez, euskal pizkundea daukagu, eta hor batez ere pausu handiak eman ziren literaturaren esparruan, bai poesian eta bai bertsogintzan, eta baita irakaskuntzaren eremuan ere, bereziki elebitasunaren arazoa planteatu zelako, eta halako berpizkunde bat eman zelako hiru probintziatan. Bizkaian, auzo-eskolak sortu ziren; Gipuzkoan, ikastolak; Nafarroan, azkenik, Lekarozko Kaputxinoen eskolako esperientzia elebiduna jarri zen martxan, bigarren mailako irakaskuntzan. Aldi berean, pizkunde kultural honekin batera eman zen pizkunde politiko bat, gehienbat autonomismoaren bidetik gauzatu zena, errepublikatik hasi eta gerra artean. 20-30 hamarkadetako pizkundea bi erakunderi zor zaie: lehendabizi, 1918ko Oñatiko batzarrean sortutako Eusko Ikaskuntzari, eta gero, horren baitan sortutako Euskaltzaleak elkarteari. Hortik bideratu ziren herri ekintzak, dantzak, poesia eta bertsolari txapelketak etab. Hori gerra-aurreko panoramari dagokionez.

Gerraoste hurbilari, 40ko hamarkada hari, euskal kulturgintzaren gaua deitzen diot nik, izan ere, apenas dagoen euskarazko libururik, 14 bat bakarrik (oso xumeak, doktrinak eta deboziozko liburuak), eta erakundeen inguruan sortutakoak, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Foru Aldundietako aldizkariak. Euskara bizitza publikotik erabat aldenduta zegoen, etxean eta elizan soilik mintzatzen zen, eta nekazal giroko herri euskaldunetan. Hori bai, diasporan eta erbestean proiektu handiak sortzen dira, Guatemalan *Eusko Gogoa* aldizkaria, Iparraldean Barandiaran buru zuena, eta Hegoaldean *Egan*-en inguruan ematen dena (Foru Aldundiaren babesean, beti ere). Noiz ematen den susperraldia? Ba susperraldia ematen hasten da 1950eko hamarkadan, orduko titulu gehiago ditugu (73 inguru), liburuak anitzagoak dira, maila eta sail askotarikoak, eta hor ikusten da literatura berri xamarra (ez dugu esango modernoa zenik). Horren sintoma izan liteke Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua,* agian baita ere Salbatore Mitxelenaren *Arantzazuko poema,* eta badira hainbat zantzu erakusten dutenak euskal literatura hastear dela bide berriak jorratzen, existentzialismoaren korrontea nagusitzen hasten da poliki-poliki, baita komentuetako bizitza intelektualean ere.

Antton Luku (2011-02-16)

Hona etortzeko erran zidaten *Euskal Kultura?* liburua aurkeztera. Liburu hori idatzi nuen, zeren eta kontzienteki eta inkontzienteki sentitzen bainuen ziklo baten amaierara heltzen ari ginela. Erran nahi dut: euskarak ukan zuen transmisio natural bat, instituzio batzuk txertatu ziren mugimendu horretan, beste amets batzuekin, eta nahiz eta gauza batzuk kausitu diren, gauza asko bidean utzi dira (ene ustez, euskararen gustua egiten zuten gauzak). Eta hitzaldian, *Euskal Kultura?* ez dut aipatu ere egin. Arazoa beste nonbait da orain. Oso garbi ikusten dugu Iparraldean ez dugula legea ukanen gure alde. Jendarteak argiki eskatu du hori, izan dira mugimenduak, partidu politikoetan, abertzale ez diren jendea ere horren alde azaldu da, eta ez da deus lortu alde horretatik. Orduan, edo euskararen hiletak egiten ditugu edo bilatzen dugu nola erresistentzian sartzen ahal garen, eta horretarako, bilatu behar dira orain arte baldintza oso txarretan euskara mantendu duten errezeta zaharrak, eta horiek egokitu behar dira. Begiratzen direlarik zer izan diren Iparraldean euskararen lubakiak, oso garbi ikusten da kultura deitzen den gauza hori izan dela. Nik uste euskaltzaleok ezin dugula kultura abandonatu beste helburu batzuetarako, ikuskizunaren mesedetan, adibidez.

Plangintza pentsatzerakoan, abiatu behar da euskal hiztunek pentsatzen dutenetik eta euskararen transmisioa inportantetzat duen jende horren eskakizunei kasu egin behar zaie. Hori erraiten dudalarik, ez dut aipatzen eragile den klase ertain hori, baizik eta euskaraz funtzionatu, mintzatu edo transmititu nahi duen euskal mundu guztia. Horiek behar dira integratu kulturaren bidez euskararekin batera.

Porrotx (2011-02-16)

Kaixo koadrila! Porrotx naiz, gaur hemen izan naiz, Eskoriatzan, eta zer esan dut? Ba gu euskaraz bizi garela, alaitasunez, eta koloretako mundu bat nahi dugula. Koloretako munduari euskaldunok geure kolorea eman behar diogu, euskararena, elkartasunarena, auzolanarena, bertsotan, kantari, sudur gorria jantzita, edo normal normal. Baina mundua tristea litzateke bi piezetako puzzlea balitz, oso tristea, oso bide motzekoa. Guk koloretakoa nahi dugu, herri, hizkuntza, dantzari, animalia pila batekin. Puzzle handi bat pieza txiki-txikiz osatutakoa, koloretakoa dena. Ai… gugatik erabakitzen dute! Txotxongilo batzuk bagina bezala! Eta txuri beltzean nahi dute mundua e! Horregatik euskara bihotzez maitatzen dugu, baina gainera, munduak behar gaitu. Mundua, edo koloretakoa izango da, edo ez da izango. Horregatik orain *Irrien Lagunak* jarri dugu martxan Berriarekin, Elkarrekin, eta elkarte eta talde askorekin elkarlanean. Euskal Herriko haurrentzat, gurasoentzat eta hezitzaileentzat, denontzat! Euskaraz gune bat alai eta pozik hazteko, denon artean. Horregatik, Tiritatxo pediatra jaio da osasunaren gaia aztertzeko, Largabista kapitaina naturarekin sekretuekin, Mari Kalanbre zientzialaria, Martin Bertso (Martinber lagunentzat) kulturaren transmisiorako, eta Ane pirata, elkartasunaren ateak zabalduko dizkiguna. Osasuna, natura, zientzia, kultura, elkartasuna, bost zutabe egitasmo berri batentzat. Aldizkaria, webgunea, eta etorriko direnak. Denak elkarrekin, sare bat. Koloretako mundu bat nahi dugulako, koloretako Euskal Herritik!

Enekoitz Esnaola (2011-02-23)

Uztarria Azpeitiko kultur koordinakundeaz aritu gara HUHEZIn. Koordinakundea 1998an sortu zuten Azpeitiko euskara eta kultur taldeek, norbanako batzuekin batera, eta 2008an desegintzat eman zen. Bere unerik onenean zegoen, bai euskarri aldetik, proiektu aldetik, instituzioekin ere akordioak zituen, 1000 bazkidetik gora, baina ikusten zen herrian bazirela espazio zabalagoak eta harrez geroztik *Uztarria* komunikazio talde gisa ari da soilik. 1998an koordinakundea sortu genuenean, Azpeitian komunikazio eta kultura arloetan gutxiengoen azpitik genbiltzan. Ez zegoen udal euskara teknikaririk, ez euskara patronaturik, ez zegoen kontzientziarik, nahiz eta biztanleen %97 euskaldunak izan. Orduan, barne prozesu mamitsu baten ondoren sortu genuen Uztarria. HUHEZIk bere txostenetan aipatzen du artikulazioa bi mailatan eman behar dela. Batetik, esparru bakoitzekoa, eta bestetik, esparru desberdinen artekoa. Horrez gain, esaten du kulturgintzaren eta instituzio publikoen arteko akordioa lortu beharko dela, biak norabide berean jartzeko. Guk hasieratik heldu izan diogu ideia horri, eta HUHEZIk txostena aurkeztu duenean, erabat egin dugu bat.

10 urtean, Azpeitiko panorama asko aldatu da. Egun, teknikaria bada euskararen arloan, patronatua badu Udalak, bi normalizazio plan daude bat eginik, eta bada kontzientzia. Gauzak egiteko beste modu bat lortu da Azpeitian, dena instituzioetatik egin beharrean, herriko kultura eta euskara taldeek ere erabakiak hartzen dituzte. Zer gertatzen da gaur egun? Euskal Herrian oraindik ez garela lehen mailara iritsi, euskarri bakoitza ez dagoela artikulatuta. HUHEZIk aipatzen duen bezala, artikulatuta dagoen bakarra agian bertso mundua da. (…) Kulturgintzako esparrua dago, eta instituzioena dago, bi erabaki gune dira. Politikan ikusten dugu beste erabaki batzuk direla, hauteskundeak direla, ez dela erraza kultur arloaren norabide edo azkartasun berean joatea. Interesgarria litzateke aurrera begira erabakigune bakarra egotea, eta hori gizartean kokatzea, kalean.

Jokin Nazabal eta Amagoia Etxeberria (2011-02-23)

Jokin Nazabal: *Kulturola* prozesua izan da proiektua baino gehiago, Hernaniko pertsona multzo bat kezka batzuen inguruan biltzen hasi eta nolabait bide bat egin duen prozesua. Euskara (erabilera eskasa), kultura (azpiegitura falta, atomizazioa) eta heziketa (parte hartzea, eztabaidatzea, proiektuak adostea) genituen kezkak, eta hortik abiatuta sortu da *Kulturola*, gabezia horiei erantzuna eman asmoz.

Amagoia Etxeberria: 2005ean hasi zen euskara elkartetik sortutako gogoeta prozesu batetik taldetxo bat biltzen, pixkanaka handitzen joan dena, eta erabaki zen gogoeta hori herriko beste taldeekin konparatzea. Pare bat errolda eta galdetegi batzuk helarazi genizkien, eta ondorioztatu genuen jendeak ere gure kezka antzekoak zituela, halako proiektu bat bultzatzeko prest zeudela. 2008an gure prozesua udalaren aldetik sortutako beste batekin topatu zen, eta *Kudeatuz* programaren bitartez herri galdeketa bat egiteko aukera sortu zen. Herri galdeketan parte hartu eta 1500 bozka lortuta irabazle atera ginen.

Garaion (2011-03-02)

Amaia Gabilondo: Eskoriatzara etorri gara Garaionetik, eta ikasleak oso serioak eta txintxoak zirela ikusi dugunez, ba dantzan jarri ditugu, eta *Lip Dub* oso polita sortu dugu denon artean. Ondoren, klasean, Garaion zer den azaldu dugu gutxi gorabehera. Eta Garaion da baserri bat berpizteko sortu dugun elkarte bat (*action family* deitzen digute), eta tira, natur sorkuntza eta ondare soziala bultzatzeko ekintzak egiten ditugu. Etxeak oraindik teilatuan zuloak ditu, baina aurrera goaz, gazteekin programa bereziak eginez, auzolana etab, edota lautadako 12 lagunekin lorazain tailerra jarri dugu martxan. Auzolanak hileko lehen larunbatetan izaten dira, apiriletik azarora bitarte, eta denok gonbidatuta zaudete.

Euskal Herria Zuzenean (2011-03-02)

Maika Lapouble: Hogeigarren urtea da aurten EHZ elkarteak EHZ festibala antolatuko duela, nire hirugarren urtea. Eta betiko formula erabiliko dugu, herri bat biziaraztea, musika eta animazio talde desberdinek lagunduta. Beti gure mezu, balio eta filosofia transmititzen saiatzen gara. Aurten proiektu berri anitz burutu ditugu, eta denetan ere, gure nahia edozein pertsona festibaleko parte bilakatzea zen. Sortu eta egin aditzen batuketatik SORGIN izeneko sorkuntza proiektua jarri dugu martxan, tokiko elkarteei bideratuta bereziki, animazio handi bat sortzea helburu duena. Bestetik, IRUDIKATU proiektua ere abian da, artista edo marrazki munduko sortzaile orori zuzendua. Erakusketa bat egingo da bidaltzen diren lan guztiekin.

Jon Ugalde: EHZ elkarteak ez du soilik EHZ festibala antolatzen. Hasia dugu EHrZ lehiaketa, laster amaituko da matrikula egiteko epea, eta hiru talde finalistek apirilaren 1ean joko dute Miarritzen beste bi talde ospetsurekin batera, izanen direnak *Punish Yourself* eta *Willis Drummond.* Apirilaren 28an ELEKTROTASUNA jaialdia ospatuko da Hazparnen, non elektronika lantzen duten taldeak arituko diren. Azkenik, uztailaren 1, 2 eta 3an EHZ festibala helduko da, baina ez ahantzi hamar egun lehenago muntaketa egin behar dela, eta festibalaren osteko bost egunetan desmuntatzea. (…) Oraingoz aurten arituko diren hiru talderen izenak ditugu: Tiken Jah Facoly, IAM eta Ken Zazpi.

Maika Lapouble: Hiru egunetako sarrera 40 euroan dago, ez da batere kario, beraz, animo!

Niko Etxart (2011-03-09)

Hemengo ikasleekin bildu naiz ene bizitzaren inguruan eta transmisioaren bueltan aritzeko. Galdera gehienak ene kantari biziaren ingurukoak izan dira, eta baziren Zuberoako bizimodua orduan nolakoa zen jakin nahi zutenak ere. Jendea kurios ikusi dut Iparraldean egun bizi den giroaz (Zuberoan bereziki). (…) Transmisioa da gauza bat bizirik atxikitzen dena lehengoa gaurkotuz, eta lur honetan euskalduna bere kulturarekin kezkatzea garrantzitsua da aurrera egiteko. Izan zite huntsa!

Lorea Agirre (2011-03-09)

HUHEZIko Sorguneak ikertegiak euskal kulturaren egoera ikertu du bi txostenen bidez, bat ikuspegiaren ingurukoa, eta bestea euskarazko kulturaren diagnosiari buruzkoa. Hain zuzen ere, gaur hori aurkezten jardun dugu, eta nabarmendu daitezkeen ondorioetako bat litzateke euskarazko kulturak eta orain arteko esperientziak kontuan izanda, kultur politikak aplikatzeko orduan desberdintasuna markatzen duena zera dela, euskara (edo hizkuntza) zein tokitan jartzen dugun. Kulturaren inguruan euskara modu hegemonikoan egon den diziplinetan euskarazko kulturak hobekiago egin du aurrera, bai sorkuntzan, hedapenean, transmisioan eta merkaturatzean errazago asmatu du. Aldiz, planteamendu elebiduna egin izan denetan, hizkuntza nagusiak menderatu du hizkuntza txikia. Kasu horietan, euskarazko kultura galtzen irten da eta horrenbestez, ekoizle, sortzaile, banatzaile eta kontsumitzaileari eskatzen zaio kontuan hartzea hizkuntzaren egoerak berak markatzen dizkion parametroak, datu soziologikoak, non, norentzat eta nola egiten dugun, zaleak non dauden, nola produzituko dugun… Nolabait, hizkuntzak markatuko digu nola egin behar den, beti ere erdigunean jartzen badugu. Bestetik, txosten honetan badira aipagarri diren beste bi elementu. Hizkuntzaren zentralitateari lotuta, eta azken 30 urteetako kultur politika zibil eta publikoak kontuan izanda, ikusi dugu kantitateari eman diogula lehentasuna, egitea, eremu guztietara heltzea, diziplina denak lantzea, eta agian orain dela unea kalitatea primatzen hasteko, eta horren arabera lehentasunak eta estrategiak aldatzen hasteko. Aldi berean, administrazio publikoari debatea zabaldu beharrean gaude, planteatzeko euskarazko kulturak ez ote duen behar propioki berarentzat diseinatua izango den kultur politika bat (eta ez hizkuntza gabeko kultur politika bat non gaztelera eta euskarazkoak nahas-mahas batean funtzionatzen duten). Horrekin lotuta, ezinbesteko dugu baita ere administrazio publikoa eta gizarte autoeratuaren arteko eztabaida, elkargune edo adostasun terminoak landuko lituzketen espazioak zabaltzea. Gutxienez, datozen 30 urteetan ze helmugara heldu nahi dugun, eta ze ikuspegirekin.

Andoni Eizagirre (2011-03-16)

Nire hitzaldiaren gaia izan da bizi dugun garai honetan (aho batez aldaketa garai bat bizi dugula eta aldaketa garai horren ezaugarri behinenak aldaketa eta ziurgabetasuna dela esaten dugun honetan), nire belaunaldiak, estatutuaren haurrak deiturikoak, nola bizi dituen aldaketak, eta bereziki zer nolako eskema kognitibo, afektibo eta emozionalak erabiltzen dituen aldaketa hauek ulertzeko, eta, aldaketa hauen testuinguruan, beren arteko harreman interpertsonalak eta biografia indibidualak egituratzeko. Iruditzen zait aldaketa garai honetan kulturalki ematen ari den bilakaerak lekukotza garbia duela estatutuaren haurrengan, eta bidenabar, uste dut nekez egin dezakegula aurrera ezelako egitasmo kolektibotan (dela euskaltasuna, abertzaletasuna, herrigintza…) aldaketa hauek kontuan hartu gabe. Aldaketa hauek ez diete eragiten lehen aldiz nire belaunaldiari, aldez aurretik zetozen zantzuak dira, baina eskema kognitibo eta emozional gisa uste dut lehen aldiz belaunaldi honi eragiten diotela, eta edozein kasutan ondoko belaunaldien aurrekariak direla. Horregatik planteatu dut gai hau esklusiboki termino soziologikoetan, iruditzen zaidalako tarteka komeni dela hizkuntza eta kulturgintzatik tarte bat hartu eta horien ingurumaria aztertzea.

Garbiñe Agirre (2011-03-16)

Gaurko saioan kultur politikek azken 30 urteetan eginiko ibilbidearen errepasoa egin dut, eta hamarkadetan banatu dut hitzaldia. Lehendabizi, 80. hamarkadan kultur politiken hasiera Euskal Herrian nolakoa izan zen azaldu dut, nola udalek dena zerotik antolatu zuten (lan sailak, horiek kudeatzeko langileak, azpiegiturak…). Ondorengo hamarkadan aurrerapausoak baino, pausuak eman ziren, pixkanaka kultur mundua profesionalizatzen joan zen, sektorea handitu eta ekonomikoki beste dimentsio bat hartu zuen. Azkenik, hirugarren hamarkada batera igaro naiz, eta esan dut kultur teknikariok krisialdi moduko bat sumatzen dugula, gizarteak kulturaren balorea ahaztu egin duela, edo ez duela hain begi bistan. Krisi ekonomikoa ongi baliatzen badugu, agian balio lezake kulturgintza berritzeko, beste pausu batzuk emateko, gehiago pentsatzeko, eta hainbat kontu birplanteatzeko.

Xabier Aierdi (2011-03-23)

Momentu politiko berria datorrela eta, zer nolako euskalgintza, zer nolako euskara transmisioa egin beharko litzatekeen, norekin, zein sektore kontuan hartuta… halako gaiak jorratu ditut. Trantsizioan gertatutakoa eta orain gerta daitekeena bereizi ditut, hasteko. Orduan ilusio eta indar askorekin heldu ginen, eta posible zen geure ikusmoldea inposatzea. Orain, beharbada, heldu gara apur bat nekatuta, desilusioa sor liteke, depresio kolektibo bat, eta ez dakit horrek ahalbidetuko duen orduan zegoen indarra orain birproduzitzea, berriro indar eragile bat izatea. Beraz, uste dut eremu politikoan xahutu ditugun energiak eremu sozialera, kulturalera pasatzeko garaia dela, eta pentsatu beharko da zer nolako estrategiak planteatzen ditugun. Izan ere, euskararen transmisioan uste batzuk genituen, batzuk bete dira eta beste batzuk ez. Pentsatzen genuen euskara ikasteak berarekin ekarriko zuela euskara erabiltzea, baina ez da gertatu. Orain iragana berrikusteko garaian gaude. Zelan berrikusi? Ba beharbada kontsentsu orokor batzuk eginez, kontsentsu politikoak. Horietatik abiatuta aspekturik garrantzitsuenak mantendu eta besteak baztertu behar genituzke. Behin kontsentsu politikoa sortuta, eta helburu berriak finkatuta, uste dut egon litekeen ilusioaren gainbeherari aurre egiteko moduan izango garela.

Ismael Manterola (2011-03-23)

Euskal artearen transmisioan bi ideia azaldu nahi izan ditut. Bata, euskal artea transmititu egin dela XX. mendean, eta bestea, XX. mende amaieran eta batez ere XXI. mendean eten bat egon dela transmisio horretan. Transmisioa nola gauzatu den aztertzerakoan, bi garai desberdin bereizten ditut:

- 1910 urte inguruan euskal arte modernoa garatzeko ahalegina egin zen. Tradizioan oinarritutako proiektu kontserbadorea zen, ez abangoardista, modernoa eta Euskal Herrikoa.

- 60ko hamarkadan Oteizaren bultzadarekin Euskal Eskolen Mugimendua osatu zuten, eta 1966an antolatu ziren lurraldeen araberako hainbat erakusketa (GAUR, HEMEN, DENOK eta BAITA, azken biak osatu ez baziren ere). Proiektu abangoardistak ziren, tradizioarekin puskatzen zuten, eta horren ordez jatorrira itzultzea proposatzen zen, hots, euskaldunen historiaurrean lortutako izaera artistiko/estetiko batera.

Bi mugimenduek izan zuten arrakasta, eta hurrengo belaunaldietara transmititu ziren. XX. mende amaiera aldera, ordea, bada une bat transmisio hori eteten dena, arte desberdina egiten hasten direna (batez ere Artelekutik ateratako belaunaldikoak). Gizartearekin bat egiten ez duen arte mota da.

Mario Zubiaga (2011-03-30)

Euskal kulturgintzaren transmisioa azken 40 urteetan mobilizazio ziklo zabal bati zor zaio. Neurri batean, demokratizazio ziklo bezala definituko genukeena, duela 30-40 urte kanpoan zena, eta apurka arlo desberdinetan barneratzen joan dena (ekologian, feminismoan, euskalgintzan….).

Demokratizazio ziklo zabal horretan ezinbestekoa izan da hegemonia politiko abertzalea, gainerakoan, seguruenik ez zen lortuko demokratizazioa eta nazio eraikuntza. Demokratizazio horretan jokoan egon dira hiru paradigma: boterearena, eraginarena eta identitatearena. Botere paradigmarekin adierazi nahi dugu hor badagoela legitimitate alternatibo bat, sistemaren aurrean alternatibo gisa planteatzen dena, eta protesta edo mobilizazio bidez hainbat eskaera planteatzen dizkiona sistema politikoari. Botere paradigma horren arrakastak neurri batean dakar eraginaren politikara egin beharreko jauzia. Zer da eraginaren politika? Bada interes legitimo gisa onartzen duela sistemak ordura arte kanpoan zegoen errebindikazio hori, eta beste interes legitimoaren artean kudeatzeko borondatea adierazten duela. Noski, eraginaren paradigmak argi eta garbi erakusten du zein den interes orokorra, erakundeak ordezkatzen duena, eta zeintzuk diren interes partikularrak, orekatu beharrekoak, eta eragileen zilegitasunean zaindu beharrekoak, inori interes orokorraren lekua eman gabe. Hirugarrenik, klabea izan den paradigma, identitatearena. Bada nortasun kolektibo bat, hizkuntza komunitatearekin parekatzen dena, eta bere autoeraketarako eskubidea eta ahalmena aldarrikatzen du. Hiru paradigma horiek jokoan egon dira, baina argi dago ziklo honen amaieran gaudela, eta nagusitu dena logika sistemikoaren araberako eragin paradigma izan da. Sistema politikoa neurri batean egonkortuta da, eta interes asko kudeatu behar dituenez, euskararen aldeko interes horiek beste askoren artean bat dira, ez gehiago. Hori oraingo Jaurlaritzaren kultura politikan eta kultura-aniztasunaren kudeaketan islatu da argi eta garbi. Horren aurrean zer egin? Jakin beharko da eragin paradigma horretan jokatzen eta lan egiten. Kontuan izan behar da normalizazio prozesuan sistemaratuko diren gizarte eremuak euskaltzaleenak izango direla, eta eragin politika horretan euskalgintzak eta euskal kulturaren transmisioak aurrerapausoak izan ditzake. Bigarrenik, jakinik botere politikan ere mobilizazio ziklo luze batetik gatozela, tarte errefraktario bat edo egongo dela, eta zail izango dela beste ziklo bat abian jartzea segituan, lanketa teoriko eta praktiko bat egin beharko litzateke, diskurtso zein jarduera mailan. Hirugarrenik, identitate paradigmari dagokionean, hizkuntz komunitatea sendotzea eta saretzea litzateke helburua. Horren lanketa teoriko eta praktikoa egiten ari da, adibidez, Bagara ekimena.

Imanol Galfarsoro & Gorka Bereziartua (2011-04-06)

Imanol Galfarsoro: Gaia ipini digute: nola ikusten duzue euskal kulturgintza hemendik hamar urtera? Eta horri erantzuten saiatu gara. Nik ideia bat izan nuen, uste dut ongi atera zaidala, eta tira, gonbidatu ditut hiru gazte. Horien laguntzaz, hiru gai landu ditugu: lehenik, Euskal Herria, gero Euskal Herria Europan, eta azkenik, Euskal Herria globalizazioan. Hasiera batean, Gorka Bereziartuak Andoni Olariagaren testua irakurri du. Ondoren, Gorkak berak Europari buruz hitz egin du. Eta tartean, New Yorketik zuzenean (Skype bidez) aritu da Ibai Atutxa.

Gorka Bereziartua: Olariagaren testua kritika bat zen, filosofiaren ikuspegitik historizismoari eginikoa, horrek sortzen dituen zenbait kontraesan plazaratu asmoz. Aipatzen zuen, aldi berean, ez dagoela oinarririk, historiak ez duela determinatzen garena edo hemendik 10 urtera izango garena. Gero Europako testuinguruan kokatu dugu gaia, Tariq Ali eta Slavok Zizek alderatu ditugu, eta Euskal Herriaren independentziaz eta horrek Europan izango lukeen lekuaz diotena aztertu. Izan ere, bi ikuspuntu oso diferente dira, aztertzea merezi dutenak. Ibaik landu du hori guztia globalizazioaren testuinguru batean, ikuspuntu post-kolonial batetik.

Imanol Galfarsoro: Niri gustatu zait eztabaidaren maila, nola jendea eztabaidan sartu den, zenbat zalantza dauden oinarriaren inguruan, zer den, zer ez den…

Gorka Bereziartua: Bai, ados. Eztabaida oso interesgarria izan da, kontu kontrajarriak atera dira, eta eztabaidatzen jarraitzeko beste oinarri batzuk ere bai.

Jose Angel Irigaray (2011-04-06)

Gure kultur transmisioaren ahuleziak, puntu indartsuak etab. izan ditut mintzagai gaur, konturatzeko nahiz eta higaduraz josita etorri gero eta gehiago, beti izan dela horri gain hartzeko eta hortik zerbait berria sortzeko gaitasuna. Jon Sarasuak erabiltzen zuen ibai fluxuaren metafora, eta nik erantsi dut mendeetan zehar gure historia erretenez josia izan dela ibai hori, eta ibai horren ur kantitatea gutxituz etorri dela, baina beti badela. Baltezpadakoa da estrategia mailan ibiltzea, eta horri lotuta, hainbat adibide ipini ditut: kooperatiben sorrera, ikastolen mugimendua, 60ko hamarkadako sorkuntza garaia eta beste hainbat. Euskaldungoan izan bada estrategia mailan ibiltzeko eta gauzak egiteko gaitasuna, eta agian, falta dena da hori politika mailara eramatea, helburuak eta bitartekoak uztartzeko gaitasun hori gauzatzea. Hori falta zaigu, eta hori gabe ezin da deus egin, premiazkoena baita, gainerakoari koherentzia emango liokeena.

Oier Araolaza (2011-04-13)

Gaurko saio honetan dantzaren inguruan aritu gara, eta saiatu naiz dantzaren inguruko gogoetak, historia-ibilbidea, eta gaur egungo egoera zein diren azaltzen, zeintzuk diren gure hausnarketak, arazoak, eta aurrera begira ze erronka, kezka, arazo eta aukera ditugun. Momentu kritikoa da hau, interesgarria ere bai, aukerak ditugu gure esku, eta batez ere, tradizioa ezagutzea da oso garrantzitsua; nondik gatozen (gure genealogia, historia), norantz joan nahi dugun askatasunez erabakitzeko. Horrekin batera, saiatu naiz halako adibide praktiko baten bidez dantzaren koreografien ibilbide historikoa zein izan den ikusten, nola islatu daiteken dantzaren bidez gizartean bertan izan den ibilbidea, hasi taldetik eta norbanakora, indibidualtasunera. Juan Antonio Urbeltzen eredu batean oinarrituta, gu ere biribiletik abiatu, soka dantzetatik pasa ingurutxo edo bikote dantzetara, eta azkenik, dantza indibidualera, egungo gizartearen pareko izan daitekeenera, iritsi gara.

Jon Eskisabel (2011-04-13)

Iñaki Urruzolak eta biok egin dugun saioa kantagintzaren ondareari buruzkoa izan da. Iñaki Urruzolak azaldu ditu kantagintza, gure herri kultura, eta kantu popularra biltzeko, transmititzeko eta partekatzeko XIX. mendetik egin diren saioak. Gogora ekarri ditu herri kulturaren biltzaile nagusiak, eta Arteolak duela urte batzuk martxan jarritako *Aho bete kanta* atariaren ingurukoak ere azaldu ditu, azken hamarkadetako euskal musika musika-eskoletara eta hezkuntzaren alorrera eramateko proiektua dena. Duela lauzpabost urte jarri zen martxan, eta egun sarean kontsultatu daiteke. Ondoren, nik *badok.info* atariaren proiektua azaldu dut. Euskal kantagintzari buruzko atari entziklopediko bat da, 60ko hamarkadatik gaur egun arte euskal kantagintzak eman duena jasotzeko asmoz egina. Konstatazio batetik abiatu ginen: interneten euskal kantagintzari buruz ez dagoela ia ezer. Duela urte eta erdi ingurutik martxan da sarean, lau hamarkadatako euskal kantagintza jasotzen du, biografiak, diskografia, letrak, bideoak, kantuak eurak entzuteko aukera… eta tira, hori izan da hitzaldiaren ardatza.

Eneko Bidegain (2011-05-04)

Nik hitz egin dut *Patxa* mugimenduaren harira, mugimenduaz baino gehiago gogoetatu dut Baiona inguruan garai batez izan zen euskal izaera berriari edo beste gai batzuen ekartzeari buruz. Nire zera zen *Patxa*-k 80ko hamarkadan orduko giroarekin bat eginez hainbat gai berri ekarri zituela Iparraldeko euskal mundura, abertzaletasunera etab., eta honekin haustura sozial bat egin zuela aurreko belaunaldiarekin. Aurreko belaunaldiek (Enbatarenak etab.) haien aurrekoekin hautsi zuen alde politiko batetik, erranez hori Euskal Herria zela eta ez Frantzia. Hor bazen haustura handi bat, mingarria izan zena hango gizartean, eta *Patxa*-k oraindik beste urrats bat egin zuen gizarte ereduaren aldetik. Beste hainbat gai berri planteatu zituen, hala nola, feminismoa, homosexualen eskubideak, eta beste hainbat gauza. Bukaeran, eztabaidatu dugu pixka bat gaur egun ez ote den berriz *Patxa*-ren izaera hiritar hori galdu (bereziki Baionatik egindako mugimendu hiritarra zen, tematika berriei esker baionar gazte asko erakarri zituen), eta euskal mugimendua berriro barnealdera itzuli da, bereziki euskaldun gehiago delako han eta biltzeko joera han dagoelako, Baionako eskualdea ahantzita. Kezka bat da, erantzunik gabe eta galdera askorekin etorri naiz, eta interesgarria izan da denon artean eztabaidatu dugulako zer egiten den Ipar Euskal Herrian euskararen eta euskal kulturaren alde. Asko egiten da, baina emaitzak ikusterakoan eta bereziki Baiona-Angelu-Miarritz eskualde horretan, euskal izaeraren etorkizuna nik nahiko beltz ikusten dut, eta horren inguruan gogoeta baten beharra sentitzen dut.

Kirmen Uribe (2011-05-04)

Norbera hasten da idazten nerabea denean. Idatzi nahi duzu irakurri dituzun liburu horien antzera (ni horrelaxe hasi nintzen), eta izan nahi duzu idazle. Gero, gaztaroan, idazten da mundua aldatzeko. Urte batzuk beranduago, norbera ohartzen da ofizioa dela literatura, eta idazle izatea baino inportanteagoa dela idaztea. Gaur egun, ni behintzat konturatzen naiz, merezi duela idazteak etxean bakarrik ordenagailuaren aurrean egoten zaren momentu horrengatik. Beste guztia jasateak (irudi publikoa, dauden zailtasun guztiak...) merezi du, momentu hori jasateagatik.

Mikel Zalbide (2011-11-05)

Zera pentsatu nuen: askotan gure artean mintzagai izan dugun baina gutxitan adostasun bat lortu dugun gai bat izango nuela hemen mintzatzeko, eta hala jarri nion izena, *Euskal eta erdal, han hemen*. *Han hemen* esatean esan nahi nuen euskal eta erdal hori zatikatze bat, dualtasun bat, dikotomia bat dela, baina zatibitze horiek, elkarren osagarri edo kontrako izan daitezkeen hitz bikote horiek ez direla euskal/erdal hitzekin soilik gertatzen, hortik kanpora ere gertatzen direla bai orain eta bai lehen. Lehengo iturburuetatik hasiz, gogora ekarri nahi izan dut testamentu zaharretik badirela bi termino neurri batean elkarren osagarri eta neurri batean elkarren bereizgarri direnak, *an* eta *goy*. Batak, garai bateko juduen gu izatearen elementu afektiboa zen, jatorri komunaren lotura zuzena zutenen adiera. Aldiz, besteak, *goy*-ek, lotura zuzena zuen beste talde, beste multzo, jendarte, herritar, erreinuetako jendearekin, hots, kanpotarrekin. Beraz, euskarazko gu/besteak zatiketa horrek badu aurrekari bat aspaldiko iturrietan, kasu honetan Testamentu zaharrean. Gero, hango dokumentuek grekora salto egin zutenean, *goy* horren itzulpen moduan *etnos* hartu izan zen, eta jakin badakigu hitz horrek kultura grekoan ez zituela justu gu esatearen ezaugarri amankomun jatortasunezkoak biltzen, besteak baizik, neurri batean kultur talde ezezagun baten ezaugarriak zituen *etnos* horrek, eta horren kontra edo osagarri agertzen zen *genos* terminoa. Badakigu termino horiek beren parekoak eta oinordekoak izan zituztela mundu latinoan, eta hor sartzen dira *gens* (eta hortik gentilak), *barbarus*, eta antzekoak. Badira aurrekariak mundu klasikoan eta mundu germanikoan gure euskal/erdal zatiketa argitzen lagun diezaguketenak. Azkenik, gurera etorriz esan dut egun *euskal* hitzarekin plano linguistikoan, kulturalean eta territorialean egiten dugula lan. Batzuetan, *euskal* euskarazkoaren ordezkoa da, beraz kulturalean ari gara. Besteetan, euskal dantzak, euskal margolaritza, euskal espedizioa, euskal okela... diogunean plano territorialean ari gara... eta beraz, horiek bereizten saiatu naiz, eta gerora begira, horiek berriz analizatzen jarduteak izango lituzkeen mesede kontzeptualak argitu nahi izan ditut.

Maite Goñi (2011-05-19)

EKTkoek eskatu zidaten nire sareko ibilbideaz hitz egitera etortzeko, eta azaldu nahi izan dut posible dela, bakoitak apur bat jarrita, denon artean euskararen presentzia sarean zabaltzea. Hasteko, nire lehen ekimena, duela 6 bat urte abian jarri nuena, azaldu dut: *Euskaljakintza* bloga. Euskal hizkuntza eta literatura Batxilergo bigarren mailan lantzeko bloga da, eta gure laneko filosofia da ikasi nahi dugun hori geuk egitea, hots, materiala guk geuk sortzea, eta sarean jartzea denen eskura, lizentzia libreekin.

Gero ekimen pertsonalagoetara pasa naiz. Adibidez, duela bi urte inguru *Gaurko hitza* bloga ipini nuen abian: egunero hitz bat hautatu, definitu, kontestualizatu, hizkuntza desberdinetara itzuli... eta horretan gabiltza oraindik ere, hitzez hitz sarea euskal edukiekin bete nahian. Haratago joanda, hitz horiek bere horretan utzi beharrean, beste ekimen bat ipini nuen sarean, guztiok ezagutzen dugun *Pasabalabra* horretatik abiatuta: *HItzapasa*.

Ez nuen nire ibilbideaz soilik hitz egin nahi, ikasleei proposamenen bat ere luzatu nahi nien, eta beraiek ere euskararen presentziaz arduratuta badaude ze ekimenetan lagundu dezaketen esan diet.

Gorka Julio (2011-05-19)

Internetez eta sare sozialak izaten ari diren eraldaketa prozesuez hitz egin dut. Lehenik eta behin lotura arinen indarra azpimarratu dut, batez ere sare sozialetan ditugun lotura horiek ez direlako familiarekin eta lagunekin ditugunak bezain indartsuak. Lotura arin horiekin jarioan aritzeak ematen dizkigun gauza on eta txarrez ere aritu naiz. Era berean, internetek sortutako eraldatze prozesuak aipatu ditut, egun oso modan daudenak, hala nola *Wikileaks* eta *Anonymous*. Askotan, nahiz eta gauza asko esaten diren, eraldaketa horien atzean pertsonen arteko komunikatzeko ahalmena egoten da batez ere, eta baita testuinguru sozial jakin bat ere. Gero, sare sozialek ohikoetan (Twitter, Facebook....) nola komunikatu gaitezkeen azaldu dut, beti ere azpimarratuz oso garrantzitsua dela komunitate txikietan sormena lantzea, eta bertako kideen artean ongi komunikatuta egotea. Baina orobat, komunitate horien artean eta metakomunitatea deitu diodan beste esparru batean ere, oso garrantzitsua da informazio hori komunitate txikietatik kanpora ateratzea, horrela osatu daitezkeelako etorkizuneko identitate berriak, eta elkartrukea zein sormena bultzatuko dituzten tresnak.

Benan Oregi (2011-05-25)

Euskal diasporaren inguruan hitz egitera etorri naiz ni, eta bota dudan mezua zera izan da: biharko Euskal Herriari begira diasporak izan dezakeela zeresana. Hausnartu dut euskaldun izatea zer den hemen, eta zer kanpoan, diasporako milaka euskaldunek nola bizi duten beren euskalduntasuna... Uste dut kulturgintzako jendeak derrigor izan behar duela diasporaren inguruko oinarrizko ezagutza bat, eta sakonagoa bada hobe, sarritan gutxietsi egin izan ditugulako, folklore hutsean geldi tu direla etab. kritikatuz. Baina uste dut ohartu behar dugula zer den beste kontinente batera bidaiatzea, beste gizarte batean kokatzea, eta handik norberaren kulturari eustea, Euskal Herriarekin sareak izatea... bihar edo etzirako guretzat hori lezio bat izan daiteke. Kontuan izan, kulturan oinarritutako erakundeak badira ere, sarritan politikoki ere oso lagungarriak izan zaizkigula.

Joseba Etxarri (2011-05-25)

Diasporaren lekukotasun bat eman nahi izan dut gaurko hitzaldian. Izan ere, diaspora askotan aipatzen den arren, ez da oso fenomeno ezagutua euskal kulturan. Nahiz eta azken urteetan telebista eta irratietan saio batzuetan landu izan den gaia, asko dago ezagutzeko oraindik. Eta ezagutzea baino, gomendagarriagoa da diasporara bidaiatzea, hura ere Euskal Herriko parte dela sentitzea, euskal kulturari han ere ekarpenak egiten zaizkiola ikustea. Gaurko saioan saiatu naiz ekarpen horiek zein izan diren azaltzen, bai euskara aldetik etab. Euskalduntasuna aipatu dudalarik, esan behar dut Euskal Herrian zazpi probintzia bagara, oraindik ere desezagutza handia dagoela gure artean, eta bizkaitar batek Zuberoan ze kezka dauden ez dakiela, esaterako. Aldiz, diasporan kontrako fenomenoa gertatu da: han toki berean biltzen dira euskalki desberdinak, ohitura desberdinak... eta *zazpiak bat* horren zentzuan aurrekariak izan dira.

JosAnton Artze (2011-06-01)

Azken aldi honetan ingurutik datozkigun eraso intelektual eta filosofikoei begiratuta, ikusten dugu giza duintasuna lurperaino jaisten dutela, gizakiari buruz baino gehiago abereei buruz ari direla dirudite, gizakiak hitz egiten dutenean abereak balira bezala, hau da, bai fisikoki eta baita, psikikoki ere hori garela diote, eta denbora guztian demostratu nahian dabiltza gizakia abere bezala izanda orduan eta jatorragoa, naturalagoa, zintzoagoa, berezkoagoa dela. Hori demostratu nahi digute psikologoek, biologoek, antropologoek (nik uste hobe dela azken horiei zoologo deitzea)… Ez dute gizakiaren dimentsio espirituala kontuan hartzen, ez da existitzen, hori zorakeria hutsa da. Orduan, materialismoa eta arrazionalismoa sartuta daude halako neurri estutan non ez dakigun nondik atera, eta halako sator-zuloan sartuta dago gizakia horien ustez. Asko eta asko horretan daude, sinetsirik hori baino gehiago izateko gaitasunik ez dugula. Horrek esan nahi du, baita ere, tximutik hurbilago sentitzen garela jainkotik baino, eta ez gara hori aitortzeaz lotsatzen.

Beraz, hitzaldi edo olerki errezitaldi honetan azaldu dut batez ere gizakien arteko harremanak zein diren, eta gizakiaren dimentsio hurbilago bat agertzen saiatu naiz, zergatik ez garen hori bakarrik, nola elkarren beharra dugun, bakoitza bat izanagatik nola guztion artean gorputz bat osatzen dugun, eta guztiok izadiarekin eta kosmos osoarekin halako batasun batean bizi garen eta elkarren beharra dugun, eta guzti hori lortzeko maitasuna nola den ezinbestekoa, zernahitarako, bai sorkuntzarako, bia elkarren arteko harremanetarako, bai bizitza honetatik joaten garenean heriotza gainditzeko. Maitasuna mintzo zaigu betikotasunaz eta hilezkortasunaz.